

# Gogoan hartu damutu baino lehen

Zure artekariak beti emango dizu informazioa... Ez bazaude seguru, bila gaitzazu

## Espainia: enpresen aurkako 200.000 ziber eraso, egunero



Arriskuak, egon badaude, eta Internetekin, are gehiago. Segur aski, hackerrek dira gure herrialdeko edozein mota eta ezaugarritako ETEen etsai nagusiak. Zenbakiak hotzikara eragiten dute: ETEen aurkako 200.000 eraso baino gehiago izaten dira egunero, eta oso kezkatuta daude datuak direla-eta. **Izan ere, ziber erasoak dituzten herrialdeetan hirugarren da Espainia.**

**Ziber arriskua** da zure negozioak eraso informatiko bat pairatzeko duen aukera.

**Ziber erasoak** da zure datu informatikoak mezu "kaltegarriekin", datu pertsonal, finantzario zein bestelako datu "sentikorak" lapurtuta, edo zure markaren eta osparearen aurkako kanpaina batekin kaltetzeko saiakerak.

### Etsaia etxe barruan dago

Ziber erasoen %70 enpresan bertan izaten dira, eta bertan lan egiten duten pertsonen aldetik. Kalte zuzenak eta alboko kalteak eragiten dituzte, eta enpresaren flotazio-marrak kaltetu dezakete, salmentei ere eraginda. Oso jarduera arrunta da, baina ETEak ez dira horren jakitun; horregatik egiten diete eraso.

Eta edonori gerta dakiok... Pozik ez dagoen saltoki txiki bateko saltzaile batengatik, bere nominarekin konforme ez dagoen langile batengatik, bazkide herratsu batengatik...

### Hackerrek ETEak erabiltzen dituzte handien ate faltsu gisa

Askotan, enpresa txikiak izaten dira korporazio edo erakunde handietarako "ate faltsuak", ederki dakite hori hackerrek. Espainian, "arrain handiagoen" hornitzaile dira "arrain txikiak". Hornitzaile bati eraso eginez gero -nahiz eta oso txikia izan-, talde osoa intoxika dezake, eta horren errudun da.

Orena, badagoela konponbidea. Espainian, neurri guztietako enpresen %35ek inbertitzen dute, ustez, ziberaseguruetan. Gero eta handiagoa da aseguru horien eskaera, zure modus vivendi-a eta zure langileena kalte handiagoetatik babesten dute, eta **multimedia erantzukizuna, segurtasuna eta pribatasuna estal ditzakete, bai eta datuen berreskuratzea, merkataritzako diru-sarreraren galera, kudeaketa gastuak eta datuengatik estortsioa ere.** Eurei esker, segurtasunaren munduan sartuko zara, "kalte handiagorik gerta ez dadin babestuta". Poliza horiek ezbeharrak eragindako kalteak arintzeko erremedioa dira. Gainera, enpresak kontzientziatu egiten dira, eta segurtasun neurri berriak ezartzen dituzte hobe babesteko.

**10 enpresatik 7 ezbehar baten ondoren desagertzen dira;** ez hartu arriskurik, utz iezaguzu zure arriskua aztertzen. Badakigu nola egin eta zure negozioa nola babestu.

#E2K  
BROKERNET  
Aseguru Artekarien  
Sare Nazionala

Hileroko buletina  
Nº 36 / Otsaila 2016

### Zure seme-alaben zer bihurrikeria estaltzen ditu Etxeko aseguruak?

Ze al zenekien? Etxeko aseguruak txikien bihurrikeria askotatik babesten zaitu, baita etxetik kanpo badira ere. Adibidez...

*Haurrak txakurra atera du, biek oinezko batekin egiten dute tupust eta oinezkoak erori eta min hartu du.*

*Haurrak eztabaida izan du bere lagun ilegorriarekin eta betaurrekoak hautsi dizkio.*

*Haurrak emakume bat harrapatu du gurpiltxoak dituen bere bizikleta berriarekin.*

*Aita dela imajinatuz, konketa urez bete du haurrak, eta urak gainezka egin du, bizarra mozteko ahaleginean.*

*Haurrak bere laser ezpata bota du lehotik, Galaxien Gerra 2015 modelokoa, eta indarraren alde iluna zeharkatu du.*

Bihurrikeriei dagokienez, ezin dugu gauza handirik egin, baina estalita egon daitezten ardura gaitzeko.



# Gogoan hartu damutu baino lehen

## “Nire bikotekidea eta gure testamentua”. Heriotzak banantzen gaituen arte



Ez dira gauza bera hil (aditza) eta hil (hilabete). Eta ez dira gauza bera, ezta ere, matrimonioa eta izatezko bikotea. Konstituzio Auzitegiaren arabera, **izatezko elkarretak** (Izatezko Bikoteen Erregistroan inskribatutakoak) **ez dauka inolako zerikusirik matrimonioarekin**; izan ere, izatezko bikotea osatzen duten pertsonak **ez dute nahi ezkondu** eta ez dute horren ondorioz onartu.

Eta bietakoren bat hilez gero? Eta, gainera, bikotea ez badago inskribatuta?

Alargunek euren ezkontidearen herentziaren usufruktu eskubidea dute, baina bikotekideek, ez. Gainera, legeak desberdinak dira autonomien arabera. Aragoi, Katalunian eta Madrilen oinordetza eskubideak ez dira berdinak, adibidez.

EIN Estatistikako Institutu Nazionalaren arabera, 2014. urtean 1,6 milioi izatezko bikote zeuden (bikote guztien %14). Joe-rak erakusten duenez, antzinako erako matrimonioen kopurua beherantz doa, eta izatezko bikoteena, berriz, gorantz.

### “Gaitz handiarentzat, erremedio handia”

“Izatezko bikotea gara, ez dugu bion seme-alabarik, baina nik bi haur ditut beste matrimonio batetik. Bizi aseguru bat kontratatu dut. Nork kobratuko du, ni hilez gero?”

Ez baduzu testamenturik egin, zure seme-alabek kobratuko dute, eta seme-alabarik ez baduzu, zure gurasoek; horiek bizi ez badira, berriz, zure anaia-arrebek eta zure ilobek. Zure bikotekideak ez du aseguru kobratuko, onuradun gisa agertzen bada izan ezik.

Asteburua horretaz guztiaz gogoeta egitea proposatzen dizut, eta beharrezkoa baduzu, zure bizi aseguruak aztertuko ditugu, dena zure egoera pertsonalarekin bat datorren edo ez ikusteko.

Gure esperientziaren arabera, **testamentua egitea** da konponbide onena: oso agiri sinplea eta merkea da. Notaritzan bertan aholkatuko dizute. Zure egoera aldatu edo zure oinordekoren bat hitzen bada, aldatu. Eta **zure bikotekidea bizi aseguru batekin babestu nahi baduzu, argi eta garbi adierazi onuradunaren izena.**

### Otsailaz geroztik: DGtK aseguru-rik gabeko ibilgailu-jabeei adierazi die zigorra jaso dezaketela

DGT Trafikoko Zuzendaritza Nagusiak komunikazio kanpaina bat jarri du abian aseguru-rik gabeko ibilgailu-jabeentzat. Bertan ohartarazi dienez, poliza bat kontratatu behar dute, apirilaren 1etik aurrera zigorra jaso ahalko baitute, 600-3.000 €-ko isuna, alegia.

Otsailean hasi da informazio kanpaina, eta martxora arte luzatuko da. Apirilean, FIVAKo (Ibilgailu Aseguratuen Fitxategi Informatizatua) eta DGTren datuak gurutzatuko ditu berriz ere Aseguruen Kontentsazio Partzuergoak balizko bat ez-etortzeak zuzentzeko.

Gomendioak



### Haurdun zeuden 10 emakume aseguruari iruzur egiten saiatu dira

Guardia Zibilak aseguru etxeei iruzur egiteko asmoa zuen trama bat desartikulatu du; haurdun egonda abortatu egiten zuten emakumeak erabili nahi zituzten horretarako. Hementzeri lagun atxilotu dituzte operazioan.

Haurdun zeuden hamar emakumek hartu ahal izan dute parte ustezko iruzur horretan. Zirkulazio istripu bat simulatzen zuten, eta bertan haurra galdu zutela esaten; abortua botikek eragiten zuten, ordea. Ondoren, kalte-ordainak eskatzen zizkioten aseguruari. Osasun langileak ez daude trama horretan nahastuta, eta aktiboki ari dira laguntzen ikerketa argitzeko.

Anekdotak